

IRITZIA
Iñaki Jaio

ERREPORTAIA
Butaneroen
lanbidea gertutik

UDALETXETIK
Garbiketa Plan
pilotoaren
balorazioa

GEHIGARRIA
KiliBARREN

BERRETAN
Asier Gorriti,
'ONG'etan lanean

411-7411.11
Urgazi Triatloi
Taldearen
aurkezpena

KULTURA
Tentazioak, Jasone
Osororen estreinako
liburua kalean

BARREN

1998ko martxoaren 27a
VI. urtea - 230. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Butaneroak
**Gero eta gas
gutxiago**

"Butanero lana 2. mailako lanbidetzat hartzen du iendeak" Jesus Aauado. htitanPrna

ZELETA

BARAZKIAK

*Baraki desberdinak
produzitzen ari gara?
tomate hibridoak, piperra,...*



114P,4/7(f/#77,74
77P,4/2/0)M1,4 ti7/
J.41;Erft7/4

Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

Itujs' Iroth aktv-f

ruzi9.4(itura

141EXO

Vt6.«a''

,aurtsaal

Yeiazat.heoom.alla



ZELETA BASERRIA * San Migel auzoa ELGOIBAR

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-balmenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43 - Tel: 74 27 20 - ELGOIBAR

Zezenbide,1-1 - Tel: 20 34 45 - EIBAR



IÑAKI JAIIO

Huescako espetxeko ziegatik

4.866 egun daramatzat Elgoibar-ko herritik kanpora, eta komunikabide honi esker gehien maite dudan txokoetara hurbil naiteke. Lau hormen artean bizi eta neure hizkuntzan herikideen berriak jasotzea zer den azaltzea, niretzat zaila izango litzateke. Hamahiru urte luzetan preso dagoenarentzat honelako informazio iturria izatea, orainaren eta iraganaren oroitzapenen arteko zubiak eraikitzeke mOdua da. Eta ezinbestean bizi izandako une ederretara itzultzen da nire gogo. Gure Amalurretik urrun egotea zein gogorra den!

Baina ezin dugu ahaztu mendeetan zehar beste herri batzuek gurea ukatzen izan duten enpeina. Eta era berean, ezin ahantz dezakegu, gure kultura, ohitura eta hizkuntza zaharrarekin Amalurrak bere fruituak eman dituela, hots, ezin ditugula ahantzi Euskal Herriaren historia menperakuntza eta ukazioaren norabidetik ateratzen etengabe saiatu diren euskaldunak.

Lur horren seme-alabak gara orain Estatu frantses eta espainoleko espetxetan isolamendura eta hormen hezetasunera ohitu behar dugun arren, makurtzen ez garen euskaldunak.

Aukeratu dugun bide honetan ez gaude bakarrik. Urruntasunaren seinaleak gainditzeko, gartzela barruko bizipenak konpartitzeko eta Euskal Herriari dagokion askatasunaren alde borro-

katzeko gurekin ditugu senideak eta lagunak.

Indartsu eta motibaturik gaude nahiz eta espetxe-zigorra eta dispertsioak dakarren sufrimendua jasan behar.

Egindako guztiak merezi zuen eta ondorioak onartzeko prest gaude, Aberriak behar duelako.

Gaurkoz nahikoa.

Hala ere, esan nahi dut nire oroitzapen eta gogoetak Elgoibarrren barreiatzeko aukera hau niretzat ikaragarria dela.

Bitartean, hemen gaudenok ez daukaguna nahi eta maite dugu, eta urrun daukagunarekin ametsetan gabiltza egunak joan eta egunak etorri...

Euskal presoak Euskal Herrira, orain!

"Aukeratu dugun bide honetan ez gaude bakarrik; indartsu eta motibaturik gaude, nahiz eta espetxe-zigorra eta dispertsioak dakarren sufrimendua jasan behar".

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

Tir 74 41 12

Publizitatea:

u. 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste,
KOLABORATZAILEAK	Iñaki Agirreazaldegia, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Amattz Gorriti, Alberto Iriondo, Miriam Iriondo, Iñaki Jaijo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Jullan Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRUAATEGIA	Sertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



IZALTY j. mda & OA

1DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

S) (00)17E1
GRUPO DANOBAT

Obsesioak

Aste honetan egunkari batean berri dut argaltzeko hormona edo antzeko zerbait desku-britu dutela. Mementuz animaliekin bakarrik egin dituzte frogak baina gizakiekin gauzak ondo ateratzen badira, urte batzuk barru baba plate-rak eta kiloka tarta jan arren, pilula miragarri bati esker, argal-argal ego-teko moduan izango gara. Mereziko al du? Egia da bizitzea tokatu zaigun garaian mehea egotea edertasunare-kin eta arrakastarekin erlazionatzen dugula. Eta egia da, baita ere, han-dik eta hemendik hainbeste bonbar-deatzen gaituztela, eguraldi ona eta uda usaina hasi orduko, herriko gimnasioak eta belardendak jendez gainezka hasiko direla. Bien bitarte-an, aldizkari bateko erreportaje ba-tean ikusi nuenez, munduko zenbait herrialdetan, zenbat eta Iodiago or-duan eta ederragoak dira emakume-ak. Hau nahaspila! Batzuk jateko plazerrari uko egin nahian eder iza-teko behar ditugun kiloak jaisteko. Beste batzuk, aldiz, etengabe jaten egon behar kilo mordoska bat hartu eta herriko gizon aberatsak maite-mintzeko, horiek ere jatearen plaze-rrari uko eginez, gehiegizko bihur-tzen denean edozer bihurtzen baita sakrifizio. Batean eta bestean, ema-kumezkoak beti ere tartean, Eta ob-sesioak beti obsesio.

L.M.

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.



61111111



• Herritar batek baino gehiagok komentatu digu ea jakiterik dagoen egunotan herrian zehar dabiltzan **topografoak zertan ari diren**. Hirigintza sailera deitu digu eta hauxe esan digute:

"Udalak enpresa bati sondeo bat egin dezan eskatu dio Elgoibarren egingo den kolektorea dela-eta. Kolektore hau nondik nora joango den jakiteko datuak bil-tzen ari dira topografoak".

• Gazte batek kexa hau azaldu nahi du: "**Elgoibarko Udala salatu eta Kalotu nahi dut**. Salatu, administrazio orokorreko administrari posturako in-tsumituak ezingo direlako aurkeztu. Eta txalotu, lan-postu berean euskara jakitea ezinbestekoa izango delako".



• Pilar ikastetxeko lurraz-piko **pasabidean baranda jarri dutenei eskerrak** eman nahi dizkie jubilatu batek. "Lehenao txarto zauan eskilarak bajatzeko, baina oin behintzat, bada-kau non heldu".

• Kimetz elkarteak antola-tutako **Barrikotea'ren afa-rian egon zen herritar ba-tek antolatzaileak txalotu nahi ditu** "ekimen benetan polita izan zelako. Hurrengo batean ere berriz antolatzer-a animatu nahi ditut".



• Basarte auzoan bizi den elgoibartar batek deitu digu **IMHko Museoa eraikitzeko ardura izan dutenak txalotzeko**. Museoa dagoen tokian zuhaitz bat zegoen eta errespetatu egin dute, arbolarentzako tokia apropos egi-nez. Garai hauetan horrelako detaileak ikustea pozgarria dela adierazi digu.

BAI, ESAN?



00011111e%

Iñaki Agirre

Ongarri Zine Klubekoa

Hollywood-eko Oscarren gaua magikoa izaten da. Pelikula, akto-re, gidoi, musika eta zine munduko beste hainbat esparrutan egin-dako lan onentsuenak saritzeko motiboak izaten da. Aurten ere ba-natu berri dira Oscarren. Gainera, aurten, euskaldun bat ere bazen saria jasotzeko hautagaien artean: Montxo Armendariz nafarra, "Secretos del corazón" pelikularekin. Zineko kamara hartu eta **Ongarri Zine Klubeko Iñaki Agirre** jarri digu eskenan.

- **Nola imajinatzen duzu Oscarren gaua? Bertan egoteko**

diarik? - Barregura ematen dit galdera honek. Egun horretan Ma-darixatik beherantz nentorren. Aktore eta gonbidatuak zine ameri-karraren adierazgarri dira eta parranda izugarria egiten dute. Bertan egoteak ez dit inbidiarik ematen baina bai Titanic-eko Kate Wins-let-ekin parranda ezin egiteak. Baina, noski, ni ez naiz DiCaprio.

- **Titanic pelikulak 11 Oscar jaso ditu.** - OscarTaren balore er-latiboaren barruan, merezi dituela uste dut. Pelikularen planteamendua inteligentea da, Cameron zuzendariak zine teknologi-koa, Hollywood-eko zine erromantiko klasikoarekin ondo kon-binatzen jakin du. Halere, gehiegizkoa dela esan daiteke L. A. Confidential-ek sari gehiago merezi izan dituen neurrian.

- **Secretos del corazón'ek merezi al zuen Oscarrik?** - Pelikula honen lehiakideak ziren beste filmeak ezezagunak direnez, hau da, espainiar zirkuito komertzialean sartu ez direnez, ezin daiteke epai zuzena eman. Iaz "Kolyal irabazi zuen, haur bat zen protagonista eta horixe izan da Secretos-ek izan duen oztoporik handiena. Ar-mendarizen tilme hau dotorea da, imdien idazle aparta da Montxo. Nire gustuekin bat datoz Montxoren zenbait pelikuletako eskena kostunbristak: "Secretos..." edo "Tasio" pelikuletakoak batez ere. Be-ra gustura sentitzen da mundu hori isladatzen. Ez datoz bere tinearekin bat "Historias del Kronen", "Cartas de Alou" edo "227 ordu".

- **Berba egin al daiteke euskal zineaz? "Tasio" edo "Secre-tos" euskal zinea izan daitekeen horretatik nahiko gertu daude-la. uste dut. Baina orokoirean ez dago "euskal zinea" izeneko mugimendurik. Gaur egungo egoera soziopolitiko aurriritzirik gabe jasotzen duen zinemagilerik ez dago. Ahaleginak egon di-ra baina hemengo produkzio guztia zine industrial menperatzaileak irentsita dauka.**


GOIAN BEGO

1998ko martxoaren 10ean, Donostian hil zen

HIGINIA ULAZIA URKIRIren sendiak,

bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola

hileta elizkizunetara agertu izana.



iwui%' 19'utanagerodk, 11~-

Cero eta edS 011hid00

"Butan00000!!!!!!". Guztioi ezaguna zaigun deiadarra da. Laranja kolorez jantzitako gizonak gasez betetako bonbonaz kargatuak ikusten ditugu kalean, etxez etxe. Azken urteotan, ordea, gas naturala sartu dute herrian zehar eta gero eta gehiago dira mota horretako gasa jartzen ari direnak etxean bertan. Hori dela eta, butaneroen lanak beherantz egin duen jakhiz nahi eta, bide batez, ofizio hau gertutik ezagutzeko aprobeztatu dugu.

Irigoibarren hiru pertsona ibiltzen dira gas bonbonak banatzen: Jesus Aguado, Juan Carlos Garefa eta Angel Romero. Jesusekin eta Juan Carlosekin hitz egin dugu euren lanbidearen gorabeheri buruz.

Jesusek 24 urte ditu eta Soraluzeakoa da. Hiru urte daramatza bonbona banatzaile bezala. Esan digunez, "lehen Agurainen egon nintzen lanean, obra batean, baina aukera hau atera zitzaidanean, etxetik gertuago egongo nintzenez, hartzea erabaki nuen". Juan Carlos Gareitt, aldiz, beteranoa da kontu hauetan. Izan ere, 16 urtekin laguntzaile hasi eta gaur egun zonaldeko arduraduna da. 35 urte ditu.

Juan Carlosek eta Jesusek Repsol enpresarentzat egiten dute lan autonomo bezala. Beraiek hasi ziren garaian zona ordaindu eta kamioia ere erosi beharra zegoen. Batez beste, Jesusek eta Juan Carlosek 3 milioi pezeta ordaindu zituztela azaldu digute, "zure aurretik zegoenak kamioia saltzen dizu lanarekin. Orain dela 10 urte garestixeagoa zegoen, lana ere gehiago zegoelako gaur egun baino". Jesusek San Antolinen hasi eta San Pedro eta Pedro Muguruza bitartean egiten du lan Elgoibarren, eta Soraluze osoan bera da banatzaile bakarra. Juan Carlosek Er-


muaran bide, San Franzisko, P. M. Urruzuno, Bernardo Ezenarro, San Inazio, A. Arrillaga, Santa Ana, Santa Klara, Errosario eta San Bartolome kaleak eta Sigma eta San Roke auzoak egiten ditu.

Sleauko hotza

Gas bonbona banatzaileek neguan egiten dute negoziarik handiena. Batez ere hotz egiten duenean, "gasez funtzionatzen duten estufak dira gehien kontsumitzen dutenak. Desiatzen egoten gara hotz egiteko!". Harelere, eguraldi txarrak badu bere alde ez hain positiboa, "batez ere elurra egiten badu. Kamioiari kateak jarri behar dizkiozu eta gero, bonbonekin batera eta bestera ibiltzen behin baino gehiagotan irrist egin eta, plauts!, lurrera erortzeko arriskua dago. Ideala izango litzateke, Burgos aldean bezala, eguraldi hotza baina lehorra egingo balu. Hemen aspaldian ez hotzik ez ezer. Askok jota euria noizean behin eta horrek ere kalte egiten digu".

3C.00C bonbona urtean

Uda sasoiari asko jaisten zaie lana. Izan ere, haurrek eskolan oporrak hartzean etxean senarra bakarrik geratzen da. "Normalean gizonek etxetik kanpo jaten dute eta bainatu ere tailerlean edo kiroldegian egiten dute, beraz, askoz gas gutxiago kontsumitzen da". Garai horretan hileko 2.000 bonbona inguru saltzen dituzte



Jesus Aguado soraluzetarrak hiru urte daramatza butanero.

baina negu partean dexente igo daiteke salmenta. Batez beste urtean 30.000 bonbona inguru banatzen ditu bakoitzak.

Butaneroek ez dute ordutegi finkorik, hau da, ez dute inon fitxatu behar, ez eta egunero 8 ordu lan egin behar ere. Autonomoak diren neurrian, euren kontura antolatzen dituzte lan orduak. Hori bai, jendeak ohitura har dezan, egun bakoitzean kale konkretuak egiten saiatzen dira, "esate baterako, larunbatetan Errosario kalea eta abar". Era horretan, jendeak badaki butaneroa noiz joango zaien etxera eta horren arabera egiten dituzte kalkuloak, eta butaneroek ere lana askoz hobeto antolatzen dute.

25 krlo eskilaretan aora

Gas bonbona batek 25 kiloko pisua du. Jesusek esan digunez "obran ere pisu handiak garraiatu behar nituen baina bonbonena desberdina da. Batez ere hanketan igartzen da. Hasieran, goizean esnatu eta eskilarak gora eta behera ibili behar nintzela pentsatze hutsarekin nekatu egiten nintzen. Gero ohitu egiten zara". Juan Carlosek gaineratu duenez, "Iehenengo egunean 30 bonbona inguru banatu nituen eta hurrengo goizean gorputz guztia minduta nuela ikustean, lagatzekotan ere egon nintzen!". Tiroiak izatea normala da lanbide honetan, gerrian edo bizkarrean arazoren bat edo beste, "baina ez da horrenbesterako". Gainera, etxebizitza asko dago igogailurik gabe, "Soraluzean, esaterako, 10 igogailu bakarrik daude herri osoan. Atera kontuak!". Jesusek aitortu digunez, "nik kirol bezala hartzen dut lana. Fisikoki asko nekutzen zara eta kontzientziatu beharra dago"

Freninak

Gaur egun jendea ez da orain dela 20 urte bezain eskuzabala. "Badaude bezero batzuk benetan propina onak ematen dituztenak baina normalean jendeak, bonbona garesti dagoela eta, ez du



Jesus bere an-00¹¹ eta laguntzaile 1¹¹p eta laguntzaile batekin bonhonak hartuta.

ezertxo ematen". Bonbona batek 1.051 pezeta balio ditu, "eta pezetarekin atzera eta aurrera ibili beharra daukagu". Juan Carlosek gogoan du nola duela urte batzuk, zonaldeko ardurdun hasi zenean, "jendeak hogeituroko bileteak oso-osorik ematen zituen propina gisa. Laguntzaile ibili nintzenez egunean 5.000 pezeta irabazten nituen eta propinekin beste horrenbeste eskuratzen nuen. Propinei esker autonomo zergak eta gasoila ordaintzeko ateratzen zen eta Gabonetan aginaldoa ematen zuten bezero askok". Gauzak asko aldatu dira, "gazteak ez dira propinak emateko batera zaleak. Emakume zahar batzuk, aldiz, duela 20 urte bi pezeta ematen zuten eta berdin jarraitzen dute". Hori bai, badira esker oneko pertsonak ere, "etxera sartu eta

kafetxoa edo txorizo pintxoa eskaintzen dute".

Eterkizuna

Gaur egun gas naturala gero eta toki gehiagotara ari da iristen. Halere, ez dira gehiegi arduratzen, "epe luzera banatzaile gutxiago beharko dira baina oraindik urte asko pasa beharko da butaneroen lanbidea desagertu aurretik. Madril bezalako hiri handietan urte asko daramatzate gas naturalarekin baina oraindik butaneroak dabilta etxez etxe". Juan Carlosek esan digunez, berari ondo etorri zaio zenbait kasutan gas naturalarena, "eraiki berri dituzten etxeetan gas naturala sartu dute eta eskertzekoa da, ze, bestela, oso justu ibiliko nintzateke etxebizitza guztietara behar bezala iristen".



Errespetu fa

Jendearekin ez dute kexarik, "normalean oso jende atsegina izaten da". Baina badira batzuk "gura lana errespetatzen ez dutenak". Esaterako, igogailuarekin zenbait arazo izaten dituzte, "beti dago norbait igogailua denbora luzez okupatzen dugula eta haserretu egiten zaiguna. Gaur egun gero eta errespetu gutxiago diogu batak besteari baina tira, ez da gehiengoa". Hori bai, biek uste dute jendeak ez duela beraien lana behar beste baloratzen, "adarra jotzen dizute. Bigarren mailako lanbidea balitz bezala", esan digu Jesusek. Juan Carlosen hitzetan, "beti arropa zikinekin jantzita joaten garelako edo, jendeak uste du edozer esateko eskubidea duela". Jesusek ondotoxo esan bezala, "nik lehen nuen lanean lokatzez betetzen nintzen eta gaur egun ez; baina lehen neukan lanbideari jendeak errespetu gehiago ziola iruditzen zait". Biak daude gustura egiten duenarekin, "edozein lanbide bezain duina da. Zerbitzu bat eskaintzen dugu eta zergak ordaintzen ditugu. Baina, laranjaz jantzita goaz eta...". Hori bai, beste lanen bat aterako balitzaie, biak egongo liriateke prest hartzeko. "Baina ni asmo horrekin hasi nintzen eta 20 urte daramatzat honetan", azaldu digu Juan Carlosek.

Juan Carlos Garcia beteranoa da lanbide honetan.

Erreparatzen al diezu Oscar sariei zinera joaterako orduan?



ANGELA ARMERO

58 urte, etxekoandrea

Ez naiz joaten zinera. Gaztetan izugarri gustatzen zitzaidan baina orain bilobekin geratzen gara seme-alabak joan daitezten. HaJa ere, Oscar-ei buruz zerbait irakurri dut.



SANTIAGO RETOLAZA

61 urte, jubilatua

Beti eukitzen dau influentzia zein pelikula edo aktoreri eman dioten Oscar sari-za. "Titanic" pelikulia aurretik ikusi naban eta bertsi zaharra ere ezagutzen naban.



ZIGOR CORNEJO

23 urte, muntatzailea

Bai, eragina eukitzen dau. Suposatzen da Oscarrak irabazi ditzun pelikulia ona izango dala. "Titanic" ikustera jun nitzan jendiak ondo zauala esan zialako baina 11 Oscar gehixegi diaz.



PAULA ALMEIDA

24 urte, langabetua

Piska bat bai. "Titanic" esaterako, Oscar-ak jaso aurretik ikusi nuen baina beste edozein pelikula saritu ikustera errazago joango naiz seguruen.



JOSUNE LARREINA

26 urte, langabetua


Usten det gehio izaten dala lagunek esaten dutena, gustatu zaien aJa ez. Aurten "Titanic"-ek irabazi du eta ez dut uste ikustera joango naizenik. propaganda gehiegi egin diote.



F. JAVIER LOOSO

38 urte, aluminio aroztegia

Ez, ze Oscarrak zine komertziala bultzatzeko amerikarren muntaia iruditzen zait. Pelikula bat ikustera orduan egunkarietako kritikez eta jendearen iritziez fidatzen naiz.



Martxoan eta apirilean puntuazio bikoitza

zuse. e.gu_kftliKe

inemen 42..renta_n lockskidu'' .

b

b4c&ko dk"k4vdoiA

laYlax

OPTIKA Zure eguzkitako betaurrekoak graduatzen ditugu.

San Frantzisko, 21 • Tel: 74 03 59 ELGOIBAR
Ostolaza, 7 • Tel: 19 21 92 DEBA



Osasunean adituak

GAIA:

Udaberriko depresio eta urduritasunak

iiii daberrian sartu berri garenez, Osasun Zentroko Roberto Balanzategi medikuari udaberriko depresioei buruz zerbait kontatu diezagun eskatu diogu. Bere esanetan, udaberriarekin batera alergiak, gastri tisa eta aldartearen aldaketak agertzen zaizkigu. Aldartearen aldaketa sasoikoa izaten da, behin-behinekoa, eta bereizketa garbia egin behar da benetako depresioaren artean.

Depresioak arrazoi garbi bat izan dezake, edo izan daiteke horren gaizki egoteko arrazoi argirik ez topatzea. Edozein kasutan, depresioaz hitz egin ahal izateko bi astetan baino gehiagoz ondoko bost sintoma gutxienez agertu beharko dira: aldarre tristea, plazer edo interes falta, apetito edo pisu aldaketak, nekea edo energia eza, heriotzarekin pentsatzea, sistema sikomotorea aztoratzea edo kontrakoa, en-utasun edo alferrikakoa izatea sentitzea, loaren gorabeherak, kontzentrazioa galtzea,...

Depresio sakonago batek tratamendu medikoa behar du.

OSASUN KEZKAK:

dilk

Nola senda daiteke papiloma bat?

ldoia Arrillaga podologoak esan digunez, papilomak sendatzeko teknika asko daude. Normalean erre egiten da edo krioterapiarekin (hotza aplikatuz) sendatzen da. Injekzio batekin ken daiteke baina oso minbera omen da. Papilomak birusak dira, mikrozauri batetik sartzen direnak. Igerilekueetan harrapatzen dira batez ere, oso kontajiosoak baitira. Papiloma irten eta podologoarengana berehala joatea komeni da, denbora asko pasatzen tagatzen bada, askoz zailagoa izaten delako kentzea.

+ DENTISTAK

Agustin Sanchez

△ Arrillaga, 8 • Tel: **74 37 47**

..... Astelehena-ostirala:
9:00-13:00 / 16:00-17:00

..... Asteartea, asteazkena, osteguna:
9:00-13:00 / 16:00-19:00

Irigoi

..... Errosario, 8 • Tel: **74 36 79**

+ MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **74 08 96**

..... Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

¶ Migel Urruzuno, 31 • Tel: **74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

+ MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen belardenda

..... San Bartolome, 25 • Tel: **74 40 31**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

+ OPTIKAK

Ikus (optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **74 37 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

+ ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

+ PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitzea nahi baduzu, deitu **BARRENe**ko 74 41 12ra

**hotikak eta
betaurrekoak
hilduko ditu**

Pilar ikastetxeak botikak eta betaurrekoak biltzeari ekin dio Hirugarren Munduko herrialde batera bidaltzeko. Honako botika hauek behar dituzte: antibiotikoak, antiinflamatorioak, klorokina, aspirina eta antzerakoak, gasak, antitusiboak, betadine, alkohola eta antiseptikoak. Kanpaina apirilaren 3ra arte luzatuko da. Argibide gehiago 74 13 31 zenbakian.

• **Lourdesera
joateko
peregrinaima**

Datorren maiatzaren 22tik 25era Lourdesera peregrinazioa egingo da Elgoibarko Lourdeserako batzordeak antolatuta. Joan nahi duten zaintzaile eta gaixoek apirilaren I Iren aurretik eman beharko dute izena 74 42 99ra deituta, goizeko 10etatik 12etara edo 74 28 77 zenbakira arratsaldeetan. Izena eman erantzungailuarekin.

• **Kimetz
Elkartearen zozketa**

Kimetz Elkartekoek esan digutenez, pasa berri den astelehenean, hilak 23, egin zuten minikatearen errifaren zozketan, 0872 zenbakia izan zen saritua. Ordezko zenbakia, berriz, 0199 izan zen. Zenbaki sarituaren jabeak hilabeteke epea dauka saria jasotzeko. Horretarako Kimetz elkartera deitu eta mezua utzi 74 07 37 zenbakian.

Azkenean ez da egingo Deba ibaiaren mozketak

Alternatiba bezala, Sigmako terrenoak berreskuratzea proposatzen du Udalak lur industrialak sortzeko

Arbaiztegiaren mozketak eztabaida egon izan da Deba ibaiaren mozketak dela eta ez dela. Kontua da, azkenean Eusko Jaurlaritzak mozketarik ez egitea erabaki duela. Jose Antonio Maturana, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publiko sailburuak idatzitako txosten baten arabera "mozketak egiteak Lerun l'xiki-Mortierka inguruan dagoen naeandrea kentzea suposatuko luke eta ingurugiroari kalte handiegia egingo lioke. Gainera, obren kostua handiegia izango litzateke". Udalak mozketak defendatu izan du San Pedro auzoan dagoen uholde arriskua gutxitu eta, gainera, 108.000 m²-ko lur

industrialak sortzeko litzatekeelako. Hala ere, Garraio eta Obra Publiko Sailak mozketak egin gabe beste proposamen bat aurkeztu du uholde arriskua gutxitzeko. Proiektu berria, *Ofmar* enpresaren pabiloia eta Karkizaoko tunelaren bitartean Deba ibaiak egiten duen meandroaren zati bat moztean oinarritzen da. Planteamendu berri hau merkeagoa da eta, ingurugiroari kalte txikiagoa egingo lioke.

Sigmako lurri buruzko erabakia
Irtenbide honek ez luke lur industrial berririk sortuko. Honen aurrean, Guillermo Garate alkatearen ustez, beste zer-

bait pentsatu beharra dago. "Bizi dugun egoera ekonomiko ona kontuan hartuta enpresa asko dago sortzen eta hazten. Horregatik, Sigma kokatzen zen lurra berreskuratzea beharrezkoa ikusten dugu. Bi urte daramatzagu horren atzetik. Kontua, Sigmako gune industrialak bul-tzatzea da".



• **IMHk neurria egindako
prestakuntza planari ekin dio**

Makina Erremintaren Institutuak en heziketarako plan bat prestatzen dihardu. 60 enpresek, guztira 2.000 langilek, hartuko dute parte. Proiektu hau enpresen eskakizunei erantzuteko asmoarekin landu da. Enpresa bakoitzari banan banakako tratamendua eman nahi zaio. 'neurria' egindako prestakuntza, hain zuzen ere. Jose Rejok, IMHko zuzendariak azaldu duenez, "lehen mundu guztiari ikastaro bera eskaintzen zitzaien. Orain, berriz, enpresa bakoitzaren beharren arabera izatea nahi dugu". Proiektuak bi urteko iraupena izango du eta dagoeneko Danobat Sierras, Ojmar, Goiti eta Vicente Gabilondo enpresetan marxan jarri da.


• **Unai Villenak Gordexolako
ipuin lehiaketa irabazi du**

Unai Villena, 17 urteko gazteak Gordexolako (Bizkaia) ipuin lehiaketan lehengo saria eskuratu du. Bere lanak "Gogoeta bi" izenburua dauka eta Unai esan digunez, mezu bikoitza du, "batetik, hiri handi baten bizitza nolakua dan kontatzen dot eta bestetik, gizonak natura nola aldatu daban". 16 eta 20 urte bitarteko mailan nagusitu da Unai eta 40.000 pezetako dirusaria eta diploma jaso ditu. Lan sarituak datorren urtean emango dira argitaratu bidean. Honako hau, ikasturte honetan Unai irabazten duen bosgarren saria da. Azaldu digunez, jasotako diruarekin uda partean Alemaniara joateko asmoa dauka.



20 zuhaitz berri Albitxurin

Zuhaitz eguna zela-eta, herriko 35 bat haur zuhaitzak landatzen ibili ziren hilaren 14an Albitxuri inguruan. Udal Brigadako langileek eta Alberto Iriondo Euskara zinegotziak Iagunduta, 20 zuhaitz landatu zituzten Albitxuriko zelaiaren bueltan. Aurreko urteetan landatutako zuhaitzen ondoan, Aldundiak emandako beste 20 adaxka berri sartu zituzten, lizarra zuhaitzarenak.



• Lapurreta saiakera Bernardo Ezenarron

Joan den asteartean, arratsaldeko 18:30ak aldera, hiru gazte ezezagun, eurretako bat kazadora beltz batekin jantzita, Bernardo Ezenarro kaleko etxebizitza batean sartzen saiatu ziren. Lapurrek atearen zati bat apurtu zuten besoa sartzeko moduko zuloa eginez. Itxura denez, ez zuten atea irekitzerik lortu eta beste zulo bat egin zioten ateari ostikadaz. Jakin dugunez, lapurrak ez ziren etxebizitza barrura sartu. Badirudi lapurrek bazekitela etxebizitzako jabeak kanpoan zirela eta inor ez zegoela aprobetxatu zuten lapurretan saiatzeko.

• Ordu aldaketa

Udaberrian sartu garenez eta eguneko argia hobeto aprobetxatze aldera, sasoi honetan izan ohi den ordu aldaketa egin behar da zapatuan, hilak 28. Goizaldeko 2:00ak direnean, ordulariak ordubete aurreratu beharko dira eta 3:00etan jarri.

Jarraik deitutako protesta ekintza

Elgoibarko Jarraik deituta, duela bi ostiral Herri Institutuko hainbat ikaslek Txankakua zubian trafikoa eten zuten. Donostiako Josu Beristain gazteak jasotako jipioia salatzeko egin zuten protesta. Jarraiko ki-deen esanetan, donostiarrak kazkezurrean zauriak izan zituen kolpeen ondorioz. Herri Institutuko ikasle hauek Txankakua parean eseri ziren eguerdiko 12:30ean hasi eta ordu batak bitartean, auto ilara luzeak sortu zirelarik. Une horretan, Ertzantzaren bi auto iritsi ziren lekura eta porrak eskuetan bertatik altzarazi zituzten.



ae440t4 vs,**

Olaso industrialclea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

OIERKI 1GOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

ts' 20 35 15 e ABERIAK 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) 20600 EIBAR



• **PPko imegotziak
Gillermo Garate
satatu du**

Juan Carlos Abian, PPko zinegotzia, Elgoibarko Udala Prentsa agentzia bat kontratatzearen aurka azaldu da. Bere ustez, "BARREN astekariak herritarrei informazioa eskaintzen die eta hileko 58.000 pta.ko kostua duen agentzia bat kontratatzea dirua alferrik galtzea da". Era berean, Ekain proiektuari buruz alderdi politikoez izan duten informazio eza salatu zuen, "Gillermo Garate alkatea DEBEGESAko lehendakaria da eta edozein komisiotan edo Bozemaleen Batzordean gaia atera zezakeen baina ez du hitzik esan. Eta gauza bera gertatu da OTAren inguruan, ez baitu azaldu Udaletxean herritarren 1.300 sinadura eta 150 alegaziojaso direnik". Bestalde, Hirigintza Batzordeko lehendakaria salatu zuen, "behin baino gehiagotan azaldu izan dut Ingurugiro Batzordea bebarrezkoa dela baina sekula ez dut erantzunik jaso. Deba ibaia olio eta bitsez estalia azaldu da behin baino gehiagotan eta Hirigintza buruak ez du ezer esan. Oker dabilela uste dut".

• **Enplegu eta
heziketarako hulego
birtuala**

Mankomunitateak Euskal Herriko Enplegu eta Heziketarako bulego birtuala jarri du martxan Novia Saleedo Fundazioarekin egindako hitzarmenari esker. Zerbitzu honek doan eskainiko die Deba Beheko biztanie guztiei merkatuan dagoen enplegu eskaintzari buntzko informazioa. Gainera, beka, lehiaketa eta trebakuntza-ikastaroen gaineko informazioa jaso ahal izango da. Honez, gain, Mankomunitateko egoitzan jarri den ordenagailuaren bitartez posible izango da Novia Salcedo Fundazioko fondo dokumental zabala eskuratzea. Xehetasun gehiagorako 70 07 99 zenbakira deitu.

Garbiketa plan pilotoa oso emankorra izan da Mankomunitatearen ustez

Jendeak gutxiago zikintzen du eta garbitasuna gehiago zaintzen da

Deba Beheko Mankomunitateak bultzatzen duen 'Garbiketa plan pilotoa'-ren lehen zatiari buruzko iritziak plazaratu dituzte Mankomunitateko gerentek, Luis Alberto Aranberrik eta Elgoibarko alkatea den Gillermo Garatek. Biak "oso pozik" azaldu dira kanpainak eman dituen etekinekin. Hata ere, ez da dena hain ona izan: tabernarien erantzuna "orokorrean txarra izan da".



Ezkerretik hasita, Gillermo Garate alkatea; Celia Pinacho kanpainaren begiratea; L. Alberto Aranberri Mankomunitateko gerentea, eta Oskar Rekalde kanpainaren arduraduna.

Amatiñok labur-labur azaldu zituen kanpaina honen lorpenak.

— **Kaleen garbitasuna, "nabarmenki hobetu da.** Henigunean 'punto beltzak' detektatu ziren eta horietan saiatu gara buru-belarri.

— **Berdeguneetako garbitasuna** nahiko kaxkarra zela ohartu ziren kanpainaren arduradunak espaloi edo kaleen egoerarekin konparatuta. Horregatik, arreta berezia jarri dute berdeguneak txukun mantentzeko.

— **40 paper ontzi berri** jarri dira herritarrek eskatuta, batez ere, Errosario, San Frantzisko eta San Bartolome kaleetan. Lehenago 231 zakarrontzi zeuden.

— **Kartoi-bilketa zerbitzua:** dendarien eskakizunak aintzakotzat hartu dira Txankakuaren bitartez egindako kontsultei esker. Dendari askok ez zituzten kartoiak kontenedoretan sartzeko. Hau ikusita, kanpainaren arduradunek bilketa sistema espezifikoa martxan jarri zuten astelehen, asteazken eta ostiraletan.

— **Ostegunetako azokako postuetan jabeekin** hitz egin ondoren, euren lana amaitu eta gero hondakinak jasoitzeko eskatu zitzaizkien alkatearen gutun baten bitartez.

— **Tabernariekin** ere izan dute kontakturik baina "esfortzu handia egin bada ere, sektore honen erantzuna txarra izan da orokorrean". Udaltzaingoak ontzi higienikoak jartzeko eskatu zion tabernari bakoitzari baina erantzuna ez da espero zutena izan.

— Azkenik, **ikastetxeetako zuzendariekin** hitz egin eta gero, ikasleekin herriko kaleetan garbitasuna mantentzeko lanari ekin zitzaion. Ideia lehiaketa bat antolatu da eta 300 ume baino gehiagok hartuko dute parte. "Etorkizunean bere fruituak emango dituen kontzientziarioa Iortu nahi dugu".

Luis Alberto Aranberrik adierazi zuenez, "kanpainaren hasieran ez ginen oso baikorrak, baina urtarilaren hasierarako, gauzak bestelakoak zirela ikusten hasi ginen. Kalez kale pertsona bat ibili da kontzientziario maila lantzen eta garbitasuna zaintzen, eta formula hau balekoa izan dela ikusi dugu". Kanpainaren giltzak "komunikazioa eta informazioa izan dira. Bi hitzetan esateko, garbitasuna gehiago zaintzen da eta gutxiago zikindu". Gillermo Garate alkateak "hobetu egin den sententzia" du eta "herriaren itxura orokorra hobetzeko" balio izan duen ustekoa da. "Alkate eta herritar naizen heinean esaten dut hau".



.....o71**Nilabete** honetako argazkia Rosi Urainek Iagatakoa da. Berak dioenez 1968. urte inguruan ateratakoa da, mojekin San Jose eskolako neskek egin zuten irteera batean.

Hona hemen protagonisten izen-abizenak:

Goitik hasita, eskumatik ezkerrera: **M. Karmen Ansola, Gloria Larrañaga, Ana Jesus Etxeberria, M. Kontxi**

Olazabal, M. Luisa Salegi, Arantxa Iriondo, Anparo Txurruka, Izaskun Jauregi, Rosario Iturria eta M. Angeles Larrañaga.

2. ilaran: **Maite Txurruka, ezezaguna, Elena Garate, Ama Inmakulada, Izaskun Urbizu (azpian) eta Nekane Zulaika.**

3. ilaran: **Rosi Urain, Rosario Zulaika, Arrate Zulai-ka, Maribi Garzia, M. Jose Isasti, Ama Josefa, M. Asun Isasti eta Juanita Loiola,**

4. ilaran: **Txaro Eizagirre.**

OLF1SG TRBERNI1

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

-EGUNEKO MENUK-
-LRRUNORTETFIN-
Rabak · Olagarroa · Fritoak
-GRUEZ-
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntuak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKR EZI1ZU RURREKONTUF1
INOLRKO KONPROMEZURIK GRBEI

Ordutegia: listelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00etatik aurrera

Anpa

Juanjo Goikoetxeak eta Francisco Antonio Saint Gerons-ek eman zituzten lehen pausoak Kilimoi futbol taldea sortzeko. 1972-73 denboraldia zen. Taldearen hasiera oso gogorra izan omen zen. Besteak heste, ez zuten futbol zelai propiorik eta, beraz, beste talde batzuen zelaian jokatu behar izaten zuten. Esate baterako, lehenengo denboraldia Elgolbarko Lerun futbol zelai zaharrean jokatu zuten eta bigarrena, Mutrikuko San Migelen. Bien bitartean, Mendaron futbol-zelai egiteko lur-saila lortu zen.



1974ko azaroaren 30a. Ospas-gaiz z futbol zelaiaren inautgraziaioa.

Garai hartan ez zen batere erraza futbol zelaia eraikitzeko lur saila lortzea Mendaron. Hala ere, Arrilagatarrek futbol zelaia egiteko lur saila ernan zuten 25 urterako. Eraikuntza lanen kostua 2.400.000 pezetakoa izan zen eta erdia eskabazioak eta betelana egiteko behar izan zen. Lanak egiten herri osoak lagundu zuen. Kontatu digute-

nez, "igual 60 lagun elkartu eta atxurra eta palia hartuta lanian ibiltzen ginan".

1974 urteko azaroaren 30ean inauguratu zen Ospas-gain futbol zelaia Mendaron, San Andres egunean. Inaugurazioko partiduan mendarotarrek Pasaiauren aurka jokatu zuten eta emaitza 0-0 izan zen. Ospas-gain zelaiak belar naturala izan zuen hasierako urteetan.

Tribuna 1982an eraiki zen, Belda zela presidentea.

Duela 6 urte Kilimon futbol taldea Preferente mailara igo zen, mendarotarrek ezagutu duten garairik onena izan zen hura, Gipuzkoako Kopa irabazi zutenean bezalaxe. Preferente manan oso gogor eta nahiko aurrera ibili ziren arren, zorte txarraren ondorioz edo, azkenean Kilimon taldea berriz jaitsi zen 1. erregionalera.

Garai hartan erropak eta abar lortzeko zailtasunak izaten zituzten. Honen inguruan bitxikeria bat dago. Izan ere, Kilimoiak Errealak lagatako erropekin jokatu behar izan zuen behin. Beste behin, berriz, Debako Amaika Bat taldearen kontrako partidu batean jokalaria batek oin herdineko bota parearekin atera behar izan zuen zelaira ez zegoe-lako besterik.

Bi denboralditan Alaves taldearen multzoan jokatzeko tokatu zitzaizen eta partiduak han eta hemen izaten zituzten, hasi Miranda de Ebron eta segi Lesaka, Otxandiano eta abar. Alaves afiziona-



Lehendabiziko Kilimon Futbol Taldea, 1972-73.



Gaur egungo Futbol Taldea.

tuen taldea atera zen urtean, Kilimondarrek Mendizorrotzan jokatu zuten partiduan 7-0 galdu zuten.

Kilimon taldean mendarotarrak ezezik kanpoko jokalaria ere egon izan dira. Besteak beste Ondarru, Mutriku, Eibar eta Elgoibarkoak. Atezain galiziarra ere izan zuen futbol talde mendarotarrak. Galiziarra Trintxerpen bizi zen eta motorrean joaten zen partidua jokatzera.

Lehenengo entrenatzailea Juanjo Goikoetxea izan zen eta urteetan Kilimoik izan zuen kapitain lana Francisco Antonio Saint Gerons-ek egin zuen.

Hasieran aipatu dugu futbol zelaia 25 urterako hartu zutela eta iaz Udalak erosi zuen. Gaur egun Kilimoi taldeak ez du jubenilik eta hori nahiko arriskutsua da etorkizunari begira. Herritar gehienek ikusten dute beharrezkoa gazteek futboleant jolas dezaten jubenil taldea sortu eta

aurrera begira Kilimoi taldean sartzeko aukera izatea. Gaur egungo ekipoa mantentzeko era bakarrenetarikoa da. Hala ere, herritarrak ez dira Kilimoiak jokatzeko dituen partidua ikustera joaten. Horrez gain, diru aldetik ere Kilimoiak behar baino gutxiago dauka eta Udalak zerbait ematen duen arren, iraunbiziko bada gehiago beharrezkoa izango du. Jendeak parte hartze zuzenagoa izan behar luke bai zuzendaritzan lagunduz eta baita partidua ikustera joanez ere. Honela, diru sarrerak handiagoak izango liriteke eta beste gauza batzuen artean gaur egun futbol zelaia duen egoera kezkarriarekin zerbait egin ahal izango litzateke. Tribuna erortzeaz dago eta euria egiten duenean, zelaia potzuz betetzen da. Kilimoi taldeak, beraz, die herritarrei Mendaroko futbol taldea babes eta anima dezaten, guztien onerako izango baita.

Bitxikeriak

- Kilimoiaren lehenengo gola partidu ofizial batean gaur egun Mendaroko alkatea den Anton Zubiaurre Sorazuk sartu zuen.
- Kilimoia sortu aurretik Futbol 7 deitzen den eran jokatzeko Mendaron. Hauek orain dela 40 urteko konCuak dira. Mendaron lau talde zeuden: "Arno" eta "Txirristaka", Azpilgoetakoak, "Jo ta apurtu" Mendarozabalkoa eta "Kilimon", Garagartzakoa. Hauek Ospas-Gain baino piska bat beheragoko sakonune batean jokatzeko zuten eta gaur egungoa baino txikiagoa zen. Altzolako talde bat ere joaten zen bertara jolastera.
- III Gaur egun Kilimoi futbol taldea 1. Erregional mailan dago. Azken partidua Legazpin jokatu zuen eta partidu gogor baten ondoren 3-2 galdu zuen.

Fernando Loio a



- **Noiz eta nola hasi zinen Kilitnoi taldean jokatzeko?**

- **1974.** unean hasi nintzen. Elgoibarraren infantiletan jokatu nuen baina jubendetan lekurik ez nenez eta urte hartan Mendaron taldea sortu zenez, hona etortzea erabaki nuen.

- **Zer dela eta horrenbeste urte jokatu zuten?**

-(Barre egiten du). Futbola asko gustatzen zaidalako eta gustura nagoelako.

- **Noiz bizi izan dituzu mementurik onenak? Eta txarrenak?**

- Denetik pasas izan dut Kilimoi taldean, mementu onak eta baita txarrak ere. Onena Preferente mailara igo ginenean itan zen nalhz eta aurretik 2. erregionaletik I. erregionalera igotzea ere lortu genuen. Momentu txamnt, berriz, ia urtebete belaunetik lesionatuta egon nintzenean izan zen.

- **Zer nolako giroa nabaritzen duzu jokalarien artean?**

Ona, beti ona.

- **Nolia ikusten duzu Kilimon-en etorkizuna?**

- Beno, nahiko zaila da. Jubenilak ez egotea kaltegarria da. Kanpoko jendea dago, zelaia ere ez da oso ona eta kanpoko taldeak ez clatoz gustura. Aurrera ateratzen ahaleginduko gara.

- **Ba al duzu futbola lagatzeko asmorik?**

- Aurten azkena izango da ia seguru. baina Kihmoian jarraituko det entrenatzaile edo entrenatzaileorde moduan.

Gazte Komisioaren

sorrera

Mendaroko gazteek talde bat sortu nahi dute noizean behin elkartu eta hainbat gauzei buruz hitz egin eta erabakiak hartzeko. Komisio edo talde hau sortzeko zenbait bilera egin dira. Hasiera batean Txus Congil hernaniarra izan zen Mendaron gazteei ideiak emateko asmoarekin. Geroxeago, berriz, Mendaroko gazte koadrilak elkartu ziren guztien artean proposaturiko ideiak landu eta eztabaidatuz. Hurrengo bilera martxoaren 27an izango da eta herriko koadrila guztiei dei egiten zaie bileran parte har dezaten.

• Santa Ana jaien antolaketa

Oraindik ere urruti xamar dauden arren, Mendaroko Udala hasi da dagoeneko Santa Ana jaien antolaketan lanean. Aurten, gainera, Udalak aukera eman die herriko gazteei jaien antolaketan parte har dezaten. Zenbait bilera egin dira dagoeneko eta Gazte Eguneko programazioa erabakita dago gutxi gorabehera. Jakin ahal izan dugunez jaiek bi astebukera iraungo dute, uztailaren 18 eta 19a eta hil bereko 24, 25 eta 26a. Gazteen eguna uztailaren 18an ospatuko da eta nahiko ziurra da gauean rock kontzertua egongo dela.

Txirrindulari lasterketa kadete

Mendaroko Txirrindulari elkarteak, Udalaren laguntzaz, 2. urteko kadeteentzako lasterketa antolatu du aurten lehenengo aldiz. Lasterketa hau apirilaren 4an (I aru nhata) izango da, irteera eta helmuga



Udaletxe aurrean izango direlarik. Aipaturiko lasterketan Mendaroko lau txirrindularik hartuko dute par-

te eta dei egiten zaie herritar guztiei ikustera joan eta anima ditzazten.

Aste Santuko prozesioa




Urtero bezala, Aste Santuan prozesioa egingo da Santa Kruz mendira. Prozesio hau Ostiral Santu egunean izango da, apirilaren 10ean. Gurutzeta hartuta, Santa Kruz mendira bidean geldialdi batzuk eginenez ospatuko da Mendaron gurutzbidea. Garagartzako plazatik aterako da goizeko 10:00ak aldera eta Mendaroko abesbatzaren partaidetza ere izango da gurutzbide osoan zehar.



ESKERTZA

1998ko martxoaren 21ean, 75 urte zituela Donostian hil zen PEDROMa ATRISTRAIN GABILONDOren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izand.



Asier Gorriti 25 urteko elgoibartarra da. Enpresa zientzietan diplomaturia, azken hiru urteotan informatika gaietan ibili izan da lanean. Hala ere, 1998ko urtarriletik "3. mundua eta bakea" izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeko (ONG) libe-ratua da. Asierrekin egon gara eta GKE-ei buruz hainbat gauza azaltzeko eskatu diogu. Bide batez, bera partaide den erakundeko helbidea eman digu interesa dutenek informazioa jasotzeko dei egin dezaten. Hona hemen: "3. mundua eta bakea", Zumarraga, 5 behea eskuma. 48006 Bilbo. Telefonoa, berriz, 9444162325 da eta Internet-eko helbidea, www.sarenet.esdhmp.

ASIER GORRITI

"Solidaritatea ez da mugatzen ONG bati dirulaguntza emateran"

— **Urtarriletik zaude koordinatzaile. Zein da zure lana?**

- Bi zatitan banatzen da. Batetik Garapen Heziketako koordinatzaile moduan naio Gasteizen, boIuntari-xuekin lan egin, sentsibilizazio proiektuak aurrera etarra, formazio ikastaroak koordinatu... Bestalde, Saharan dauzkagun proiektuetan laguntzen nabil.

Nola definituko zenuke ONG bat?

- Askok daude eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Esate baterako, Caritas ONG bat da eta lan konkretu bat egiten du, beti ere elizari lotuta. Esan nahi dut, ONG bakoitzak arlo bat lantzen duela filosofia konkretu baten haritik. Nolabait independente edo

Instituzioetatik kanpo dauden erakundiak gerala izan laike ezaugarri amankomuna. ONG guztien helburua azpigaratutako herrialdeen garapenaren alde lan eitzia da: "Medicos sin fronteras" edo "Payasos sin fronteras", bixak diaz ONGak baina era desberdinin lantzen dabe garapena.

— **Azken urteotan badirudi modan daudela ONGak. Solidarioagoak al gara?**

Batzuetan ONGok ere ez dugu ongi jokatzeko eta badirudi solidario izateko era dirulaguntza ematean oinarritzen dela. Hau da, momentu konkretu batean dirulaguntza ematearen truke kontzientzia garbitu eta solidarioagoatzat jotzen du bere burua jen-

deak. Baina ez da benetako jarrera, ez egunero eman beharko litzatekeen portaera. Eguneroko bizitzan ez diogu kasu gehiegi egiten gure ingurutik kanpo gertatzen diren gauzei.

Ez dugula Aktiboki parte hartzen esan nahi duzu?

Hori da. Ekintzak antolatzen ditzugunian inor gutxi huneraten da. Momentu honetan, esaterako, Saharak hauteskundeak izango ditxu urteak iraun ditzuen gerra baten ondoren Marruekosetik banatze-ko. Marruekos izugarritzko presioa eitzen ari da eta guk hemendik Saharakoei gure laguntza eta babesa helerazi nahi diegu. Laster ekintzak antolatuko ditzugu eta ahalik eta jende gehixen animatzia nahi genuke.

— **Ez al dauakazu asmorik kanpora joateko?**

- Alde horretatik hankasartze asko egin izan dia. Mundu honetan edozeinek ezin dau edozein lan egin. Askotan uste dogu hemen jaixo gerala azpigaratutako herrixetara jun eta edozer erakusteko kapazak gerala eta hori ez da hola. Heziketa desberdina jaso dou, baina ez hobia. Neri aurtan Saharara juteko aukera urten jata. Diru bat dago bitaminadun gailetak bialtzeko eta hara jun bihar gera dana gestiona-tzera. Kontraesan bat da ze alde batetik, ari gera garapenaz hitz egiten eta bestetik, ez diegu lagatzen bialdutako diru eta produktuak kontrolatzen. Baina hori exigitzen dute dirulaguntza emateko eta...

gESTEE1 ESANA

"Bere bizitzako helburua bete du: bere idealak ogibide biburtzea". IGOR SOTA. laguna



Altzolan
anala

„1_____”
taberna

- Parrila
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua
- Asteburuetakoko menu bereziak

Apirilaren lean zabalduko dugu
arratsaldeko 19:00etan
DENOK ZAUDETE GONBIDATUTA

Bainuetxeko Zumardia, 5 ALTZOLA • Tel: 74 43 46

UDABERRI IAIA

Martxoaren 28an, larunbata
LHko 3.4-5-6 mailak

Gonbklatu^{ta}

EGITARAUA

lau^{de} de^{n°11}

18:00 Plaza Handian elkartu. **JOLASAK**

20:30 AFARIA (bakoitzak berea ekarri beharko du)

21 :00 Trikitilariekin **DANTZALDIA**

22:00 Amaiera

Antolatzailea:



Elgoibarko Izarrako
Atxutxiamaika **B. T.**



Elgoibarko
Udala



Eusko
Jaurleritza



A

rgazki honek 70 bat urte izango dituela esan digu Pili **Gurrutzagak**. Urkiri baserriko atarian Gurrutzaga-Lizarralde familia agertzen zaigu, erretraturako dotore-dotore jantzita. Sasoi batean seme-alaba asko izaten zirela eralcus-

ten digu argazki honek. Hauek konkretuan, 12 anai-arreba ziren. Aita eta ama, beltzez jantzita daudenak dira. Aitak txapela du eta amak zapia. Hona hemen euren izenak:

Atzeko ilaran, ezkerretik hasita: **Isabel, Migel, Jose Manuel, Jose, Txomin, Josefa** eta **Manuel (t)**.

Aurrean eserita: **Esteban (t), Meltxor, Juan Jose (t) (aita), Mari Tere, Tomasa (t) (ania), Higinia** eta **Maria**.

1 TURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN
 San Roke, 30 behe. 74 36 52 74 27 89
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

San Frantzisko, 27
 Tel. 74 26 21
Truk

Cordon, Villarchao, c.b.
IDEKCIRAZIC,A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
 San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

KAROBI
 ELGOIBAR



• **Egoitz Mora,**
Gipuzkoako Judo
txapeliduna

Egoitz Mora, hilaren 19an Oreretan izan zen Gipuzkoako Judo Txapelketan erraz nagusitu zen 18 urtez azpikoetan. Xabi Gonzalez laugarrena izan zen. Hilaren 22an, berriz, Egoitz Morak proba teknikoak egin zituen gerriko beltza 1. dana eskuratzeko. Azterketa gainditu zuen elgoibartarrak eta dagoeneko Ibai Elkarteko zortzigarren gerriko beltza da. Bestetik, Andoni Atriok Judoko Epaile Arbitro titulua lortu zuen Bilbon hilaren 21ean.

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan, berriz, alebinitan urrezko dominak Zuriñe Polo eta Aitor Mugerzak lortu zituzten. Roberto Pazmiñok zilarrezkoa eskuratu zuen eta Aitor Gonzalezek eta Fernando Pazmiñok brontzezkoa. Infantiletan, Maialen Morak urrezko domina irabazi zuen. Ibai Kirol Elkarteko judoek lortutako emaitza hauekin ziurtatuta dute hil bukaeran izango den Gipuzkoako Txapelketako finalerako txartela.

98ko denboraldiku '1atleta elgot artarra

Ciclos Turbinaren babesarekin lortu du Urgazi Triatloi Taldeak

Elgoibarko Urgazi Triatloi Taldeak 98 denboraldirako triatleta taldearen aurkezpena egin zuen hilaren 20an. Aurten estreinako, Urgazik sponsorizazioa lortu du, eta hortaz, posible izan da taldea osatu eta parte hartuko duten lasterketen egutegia prestatzea. Era berean, hiru proba antolatuko dituzte: Lehendakari txapelketa apirilaren 25ean, Debatutriku igeriketa trapesia eta Karakaetra igoera.



98 denboraldirako Urgazi Triatloi Taldeko kideak Debako Ciclos Turbinako arduradunekin.

Urgazi Triatloi Taldeak Debako Ciclos Turbinaren babesarekin jaso du aurten. Moser bizikletaren banatzailea den etxe honek duatloi, triatloi eta errepiderako ekipo osoa finantziatu dio Urgaziri. Laguntza hau denboraldi osorako izango da eta baliteke aurrerago ere beste zenbait laguntza jasotzea.

Urgazi Triatloi Taldeak bazkide gehiago ditu aurten. Honi esker, taldea askoz kompetitiboagoa izango da eta Euskadiko lehenengo hiru klubetan artean eta Estatutuko seigarren edo zazpigarren lekuetan sailkatzea espero dute.

Duatloiko Euskal Zirkuitoa

Zapatuan, hilak 28 ha-

si, eta maitzaren 9ra bitartean, bost duatloietan hartuko dute parte elgoibartarrak. Zapatuan Oriatin izango den duatloian sei triatleta arituko dira Urgazi taldeak: Martin Dominguez, Jorge Gonzalez, Imanol Esnaola, Moises Andonegi, Martin Lopez de Larrainzar eta Ion Aizpurua. Apirilaren 4an Gasteizko duatloian izango dira. Apirilaren 25ean Elgoibarren "Lehendakari Txapelketa" egingo da, eta zirkuitoko azken bi lasterketak Beasainen eta Eibarren jokatu dira, maiatzaren 1 ean eta 9an. Zirkuitotik kanpoko lasterketan ere hartuko dute parte: Gernikan, Getxon eta apirilaren 19an Espainiako Txapelketa absolutuan, Madril.

Triatloietan egutegia

Urgazikoek bost triatloietan parte hartuko dute: Zarautz-Getaria klasikoa, Donostiakoa, Lekeitikoa, Gasteizkoa eta irailean, Azkoitia-Zumaian egiten dena.

Iron-man

Triatloietako probarik gogorrenak iron-man deitzen direnak dira. Abuztuaren 15ean, Mediterraneoan Alpeetan, Emburun munduko triatloi gogorrenetarikoa egingo da. Parte-hartzaileek 3.800 metro egingo dituzte igerian eta 190 km. bizikletan, Briancon-eko mendate mitikoa igoko dutelarik. Azkenik, aldapa handiez osatutako 42 km.ko maratonia korritu beharko dute. Iron-man honetan Iñaki Kondek bakarrik hartuko du parte momentuz.

CE CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi, 12 behea
Tel-Faxa: 74 04 89

f 13CUTICUE DEL PAN

Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria

an Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 zr 74 33 92

Garate-Osoro eta Beraza-Gabilondo, Sallobenteko pilota txapelketako irabazleak

Sallobente Elkartek antolatuta, Artazo pilotari zenaren omezeko eskuz binakako finalak jokatu ziren Sallobenteko frontoian San Jose Egunean, hilak 19. Bigarren mailako bikoteak ernan zian hasiera norgehiagokari. Angel Garate eta Xabier Osorok 22 eta 14 irabazi zioten Loiola eta Txurrukarri. Kategoria honetan Angel Garate aukeratu zuten pilotari onena. Lehen mailan, Beraza eta Gabiiondo 22 eta 11 nagusitu ziren Antxon eta Basuetaren aurrean. Jokalari onenak jasotzen duen saria Berazarentzat izan zen. Argazkian, partehartzaileak, babesleak eta



antolatzaileak. Partiduaren ostean 50 bat lagun bildu ziren eliz arkupeetan erretako 6 bildotsak jateko.

Federazio Kopa Haundi txapelketatik kanpo geratu da

Asteazken arratsaldean Kopako itzulera-abentura amaitu da elgoibartarrentzat. Orko partidua jokatu zuen Haundik Ramaetxeak esan bezala, "hemendik aurrera, cing de Santanderren zelaian. Mintxetan 1 gure helburua ligan postu hobea lortzea eta 3 galdu zuten elgoibartarrek eta beraz, izango da". Saiklkapen orokorrean erdialdean "erasorako asmoarekin" joan ziren Ormaedaude elgoibartarrak, beraz, bigarren mailan txearen mutilak. Hasiera ez zen txarra izan. jarraituko dute hurrengo denboraldian. Madinak 5. minutoan txurigorriek lortutako gol bakarra sartu zuen. Minuto bat beranduago, ordea, Racingek berdindu egin zuen. Lehen zatia amaitu baino lehen Santanderren agintealdia amaitzeaz dagoenez, datorren koek hirugarren gola sartu zuten. Partiduari asteartean, hilak 31, Kultur Etxean ezohiko buelta ematerik ez zutela ikusita, bigarren batzarra izango da. Bertan zuzendaritza bezatian entsaio taktikoak egiteko aprobetxatu rriaren nondik norakoak azaldu eta aztertuko zuten elgoibartarrek. Federazio Kopako dira. Bilera 11untzeko 20:00etan hasiko da.

KIROL ALBISTEAK

• Gimnasia erritmikoa Olaizaga kiroldegian

Ibai Kirol Elkartean eta Kirol Patronatuaren arteko akordio bati esker, datorren apirilaren 2tik aurrera, Kiroldegiko kantxan emango dira Ibai Kirol Elkarteko gimnasia erritmikoko klaseak. 4 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta klase egunak astearte eta ostegunetan izango dira. Bazkideentzako prezioa 3.300 pta.koa izango da eta ez direntzat 4.000 pta. Izena emateko 74 44 15ra deitu edo informazio gehiago nahi izanez gero, 74 44 15 edo 74 07 93 telefonoetara deitu.

Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarriak

Ibai Kirol Elkarteko gimnasia erritmikoko ikasleek Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarriak izan ziren probetan hartu zuten parte hilaren 14an. Alebinetan, konjuntoen atalean, Maria Idiakez, Oihana Garate, Carmen Lendinez, haitz Solabarrieta eta Irene Unanuek hartu zuten parte. Banaka, Carmen Lendinez bigarrena izan zen; Oihane Garate hirugarrena eta Maria Idiakez 10. postuan geratu zen. Kadeteetan, Esther Idiakez txapela eskuratu zuen. Hurrengo txapelketa apirilaren 4an izango da.

EMAITZAK

Futbola

Zaragoza 3 - Haundi 0
Boskozaleak 1 - Elgoibar 1 (2. erreg.)
Ostadar 2- Pedrusko 3 (2. erreg.)
Elgoibar 3- Laudio 0 (E. L. juh.)
Elgoibar 3 - Aloñamendi 3 (1. jub.)
Elgoibar 2 - Arrasate 2 (Inf.)
Elgoibar 2- Lagun Onak 2 (Neskak)

Idarraga Kafeak I. Saria

Elgoibar 66 - Astigarraga 43
C.D.ko jokalaria **erregularrena 97/98**
Jokalaria Punluak
1- Miguel Draz 36
2- Eneko Barrenetxea 32
3- Karlos Madina 32
4- Gorka Guarrotxena 30
5- Ander Iruretagoiena 25
6- Iker Atxabal 23
7- Gaizka Lazarobaster 21
8- Jabier Gurrutxaga 19
9- Unai Aranburu 19
10- Joseba Igartua 17
11- Koldo Agirregomezkorla 17
12- Xabier Alonso 11
13- Jon Argoitia 9
14- Mikel Elkorri-Irbe 9
15- Igor Prieto 8
16- Aiert Zinkunegi 8
17- Aitor Trebiño 8
18- Mixel Badiola 6

AGENDA

Futbola., Mintxetan

Larunbata, 28
17:00 Haundi - Amurrio
18:45 Pedrusko - Eibartarrak
Igandea, 29
11:15 Elgoibar - Almen (Kad.)
17:00 Elgoibar - Haundi (2. erreg.)
Igeriketa, Kiroldegian

Larunbata, 28
16:00 Eskolarteko Igeriketa
Benjaminak: 25m. libreak
Alebinak: 50m. libreak
Inlantilak: 100m. libreak
Kadeteak: 100 m. libreak

Eskolarteko kirolak

Larunbata, 28
Saskibalola
Benj. mut. (Ikastolan)
9:30 Pilar Bulls - Herri Osoak
10:30 Ikas Bulls - Pilar lakasitos
11:30 Ikas Biburri - Mendaro A
12:30 Ikas Gorri - Ikas Tximista
Benj. nes. (Ikastelan)
10:00 Pilar Txiki - Ikas Ortzadar
11:00 [kas Beleak - Pilar Usoak
12:00 Ikas Bizkor - Ikas Hartz
Eskubaloia
Aleb. mut. (Ikastolan)
10:30 Ikas Inpernu - Herri Boomerang
11:15 Mendaro B - Ikas Gol
12:00 Ikas Espadubi - Pilar All Star
Areto Fulbola
Int. mut. (Mintxelan)
9:45 Ikas Bolilla - Pilar Ajax
10:30 Ikas Axelko - Ikas Otsoko
Int. nes. (Mintxetan)
11:15 Blablalarrak - Ikas Trons
12:00 Ikas Gorribeltz - Ikas Spanlv
Aletismoa (Mintxetan)
9:45 Aletismoko probak

R.I 21

Rossiniren anaia izkutua

Nsikazaleak garen guztiok gal-
etu diogu geure buruari ea
zein izango litzatekeen zentzume-
nak estimulatzen behar den formu-
la. Dirudienez, urte hauetan sekretu
horren jabe diren talde askorekin to-
po egin dugu, Jeff Buckleyren epel-
tasunetik hasita, Girls Against Boys-
en malko mingotsetatik pasatuz,
Shellac taldearen espiral trinkoan
erori arte. Zorionez beste izen bat
gehitu diezaiokegu zerrenda honi,
JUNE OF 44. Ikaragarriak, bai dis-
koan bai zuzenean ez dute inolako
kupidarik. Diseinatzen dituzten pai-
saia elektrikoekin belarriak, bur-
muina eta bihotza zulatzeko gai di-
ra, beti zorabioak gidatzen duen
errinnoekin jolastuz. Ezuste aurpe-
giaz agertzen zaigu Chicagoko lau-
kote hau, besapean hiru diska eta
single bat dutelarik. Rock esperi-
mentala eta inprobisazioari irekia
dagoen musika jorratzen dute.
`Creseendo'aren erregeak bailiran
azaltzen dira, pasarte batetik bestera
leunki edo bortizki pasatzeko gaita-
suna haruntzago eramaten dute. Tal-
dearen izena Heruy Miller idazlea-
ren emaztearen omenez jarri zuten
inolako mezurik gorde gabe, noski.

Rossinik burua altxatuko balu...
seguraski irribarre egingo luke.

Iban Urizar eta Julen II

JUNE OF 44



Txistulari Eguna ospatuko da Elgoibarren igandean, hilak 29

Euskal Herriko 150 txistulari inguru elkartuko dira

*Igandean, hilak 29, Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurrena-
ren bueltan, Euskal Herri oso-
tik etorritako txistulariak elkartuko di-
ra Elgoibarren. Goiz eta arratsalde-
rako hainbat ekitaldi antolatu dira.*

gunari hasiera emateko, le-
hendabizi kalejira egingo
dute txistulari guztiak goize-
ko 9:30ean. Jarraian, 10:30ean hain
zuzen, Parrokian meza izango da
Txistulari Elkarteko hildako bazki-
deen oroimenez. Meza ostean Plaza
Handian elkartuko dira denak. Har-
ritz Dantzari Taldeak eta Udal Txis-
tulari Taldeak soka-dantza dan-tza-
tuko dute. Eguerdiko 12:30ean He-
niko Antzokian batzarra egingo du-
te elkartekideek eta eguerdian, lagu-
narteko bazkaria izango da Jubilat-
u Etxean. Arratsaldeko 18:00etan, ber-
riz, Haritz Euskal Dantzari Talde-
koek eta Inazio Bereziartua Musi-
keskolako ikasleek dantza saioa es-
kainiko dute Plaza Handian.

Gaur egun Euskal Herriko
Txistulari Elkartek 2.000 bazkide
ditu. Urtean zehar hainbat ekintza
antolatzen dituzte. Elkartek 2.002
urtean 75. urteurrena ospatuko du
eta dagoeneko talde bat prestatzen hasita
dago egitaraua. `Txistularia' izeneko al-

dizkaria ere argitatzen dute, hiruhilabete-
karia dena.



*Plaza Handian eta S. Frantzisko kalean ateratakoa
argazki hauek, 1966ko irailean Euskal Herriko
Txistulari Elkartek Ansola dinastiari egindako
oinenaldi egunekoak dira.*

TXISTU101 ELGOIBARREN

jed Igoibarko txistuaren historiak 200 bat urte badituela esan digu Jose Inazio Sarasuak.
Historia hau, nahi eta nahi ez, Ansolarren dinastiari lotuta dago. Familia honen az-
ken belaunaldia Felix, Jose, Luis eta Julian anaiek osatu zuten. Euskal Herrian egiten ziren
txapelketa guztiak irabazten omen zituzten. Gerra zibilaren ostean, Udaleko txistulari
ziazle aparte, txistulari taldeak sortzen hasi ziren han hemenka, beti ere Luistarren babes-
pean. Duela 30 urte inguru, Elgoibarko Izarraren baitan, txistua irakasten hasi zen Elgoiba-
rren, Antonio Azpiazu irakasle zelarik. Ehundaka haurrek ikasi zuten txistua elgoibartar ho-
nekin. Garai honetan ere gorpuzten da Udal Txistulari Taldea gaur egun ezagutzen dugun
bezala. Duela 15 bat urte, Elgoibarko Izarratik irten eta txistu akademia eratu zen. Musi-
keskola sortu zenean, orain 11 urte, txistu akademia bertan integratu zen. Gaur egun Ain-
tzane Larreategik ematen ditu klaseak eta 12 bat ikasle ditu. Udal Txistulari Taldea, berriz,
13 elgoibartarrek osatzen dute eta Jose Inazio Sarasua da zuzendaria.

Tentazioan jausteko idatzitako liburua

Jasone Osorok 25 ipuinen bilduma argitaratu du

Astearte eguerdian, Donostiako Bilintx liburudendan egin zuen Jasone Osoro BARRENe-ko lankide eta idazleak bere estreinako liburuaren aurkezpena, "Tentazioak". Aurkezpen ekitaldian Elkarlanean argitaletxeko Xabier Mendigurenek esan bezala, "euskaletan idazle gazte baten aurrean gaude eta zerbait azpitnarratu beharko banu, Jasoneren estreinako lan honek duen freskotasuna, arintasuna eta sentibiltasuna aipatuko nituzke".

patxi Ezkiaga poesia eta prosa idazleak egin du "Tentazioak" liburuaren hitzaurrea. "Eibarko literatur tailerrean egin nuen tope Iehenengo aldiz Jasonerekin. Beranduago Egunkarian bere ipuin bat irakurri nuenean zera berezi bat bazuela iruditu zitzaidan eta harreman literarioa sortu zen gure artean. Liburu hau lau edo bost aldiz irakurri dut eta aldi bakoitzeko atsegin gehiago hartu diot. Erraz irakurtzekoa, barrualdera egiten duen bidaia detailaz kontatua eta deskribatua, moralkeriarik gabekoa, zintzoa. Biziki gomendatzen dut irakurtzea".

Konszienteki 16 urterekin hasi zen idazten Jasone. "Kasualitateak Elkarreko Xabier Men-



Donostian izan zen aurkezpenean, Jasone Osoro Patxi Ezkiaga eta Xabier Mendigurenen erdian.

Azpian liburuaren azala, Mikel Cornejoren marrazkiarekin.

digurenen eskuetara eramane zituen nik idatzitako hainbat ipuin eta bide horretatik sakontzeko gomendatu zidan berak. Hortik aurrera, *Tentazioak* liburuaren jasotzen ditudan ipuinetariko asko jaio ziren". Egunerokotasunean gertatzen diren hainbat istorio arrunt kontatzen ditu Jasonek, "flash modura", egoera eta pertsona guztiek duten sentsualtasuna azpimarratuz, zenbaitetan ukitu erotikoa ere bai, "baina ez da liburu erotikoa".

Elgoibartar honen estreinako Iana liburudendetan dago salgai.



- Liburu bat kalean. Nolako esperientzia?

Xabier Mendigurenek, ELKAR-eko editoriak ipuin bilduma bat itxia eskaini zianetik gaur arte ilusioz beteta nao. Oin aurkezpenak, elkarrizketak eta horrelako gauzetan nabil batetik bestera eta egia esan nahiko arrarua egiten da, orain arte ni izan naizelako beti elkarrizketatzailia, baina nahiko gustura nabil.

- Nolako 'tentazioak' dira zureak?

- "Tentazioak jarri nion izenburu erakargarria nahi naba. Gainera, ipuinak nolakuak dian kontuan hartuta, egokixa iruditu jatan izenburuak narrazivak lotzen ditxualako. Ipuinak definitxu biharko banitxu, eguneroko bizitzan gertatzen dian istoriak tonon ironiko eta absurduan kontatuta diala esango nuke, guztixak ukitu erotikoa batekin. Kasu batzuetan, Txanogorritxu, Loti Ederra eta Errauskine ipuinen bertsio berriak ein ditxut alde sentsualari indarra emanez. Bukaera irekixak dia, irakurlian esku lagatzen ditxut.



"Eguneroko bizitzako egoerak findtera eramanda daude askotan, malizia eta erotismo"

- Zein harrera espero duzu?

- Lan bat itxen dozunian beti nahi dozu jendian artian harrera ona izatia eta kasu honetan ere hori gertatzia espero dot. Gainera, ipuin bakoitzan hasieran Mikel Cornejok indako marrazkixak agertzen dia eta azaleko irudixa ere berak indakua da. Pentsatzen dot he-

rritar batek i (latzitateko Iehen liburuak kuriositatia be thintzat sortuko dabala, hortik aurrera liburudendara jun eta erosiko daben edo ez....

- Isadora Dur tean dantzariaren bizitzari buruzko bilduma egin duzu.

- Elkar argialet xak Biografiak izeneko bilduma berri: jarri zaban martxan iaz. Neri Isadi ora Duncan dantzariaren bizitzari buruzko liburu idaztia eskaini zien. Bizitza apasionanda euki zaban eta zoriona eta zoritxarra, bixak ezautu zitxun. Merez i dau haren bizimodua ezagutzia. Liburu momentu honetan inprentan daol laster kaleratuko da.

- Zure liburu erosteko zein argumento erabili ko zenuke?

- Ipuin motzal eta irakurterrazak dia, hizkuntza zuze 'fla erabiltzen dot eta irakurtzeko alferr ak dianek ere ez dabe aitzakiarik izang o. Horri gehitzen badiogu egoera nor tnalak kontatzen diazela baina ikuspuntu anbiguo batetik, limite-ramanda atskotan eta maliziaz eta erotismoz betei ta daudela, uste dot argumento nahiko erakargarriak diazela edozeinentzat.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:	
Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak	740385
O.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar) ..	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ..	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua ..	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa ..	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

ADINEKOEN ETKEAK

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia ...	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola	74 21 41
HHI (EPA)	74 08 80
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H	74 41 32
Herri Institutua	
Arreitu erre	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pifar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español ...	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

29 igandea

9:30 XOXOTERA
MENDI IRTEERA
Irteera IMHTik
Antolatzailea: Ikastola

9:30 TXISTULARIEN
KALEJIRA
10:30 HILDAKO
TXISTULARIEN
ALDEKO MEZA
Parrokian
JARRAIAN, Soka-dantza
Haritz eta Udal
Txistulariekin
Plaza Handian

12:30 TXISTULARIEN
ELKARTEKO BILERA
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
"George de la jungla"

18:00 DANTZA SAIOA
Haritz Dantzari Taldearekin
eta Musikeskolako
ikasleekin
Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
"L. A. Confidential"

30 aste e ena

19:30-22:15 ZINEA
"L. A. Confidential"

31 asteartea

19:00 BILERA
INFORMATIBOA
2. BBB eta REMeko
gurasoentzat
Ezenarroko areto nagusian
Antolatzailea: Herri
Institutua

20:00 C. D.
ELGOIBARKO
EZOHICO BATZARRA
Kultur Etxean

2 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"La belleza de las cosas"

ostirala

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

22:30 ANTZERKIA
Antzeztaldea: Txalo
Produksioak
Antzezlana: "Xagu tranpa"
Herriko Antzokian

ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
P. M. urruzuno 8an

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
"La buena estrella"

2 larun a a

19:30-22:15 ZINEA
"L. A. Confidential"

22:30 KONTZERTUA
"Aton Rhumba"
Gaztetxean

• III • I • • a l • • 1 1 • • I • MI • • 1 1 1 1 • 1 1 • • • 1 1 1



1 NE

Zuzendaria: Curtis Hanson.
Antzezleak: Kevin Spacey, Kim
Bassinger, Russell Gowe.

L. A. Confidential

Jack, Bud eta Ed poliziak dira eta Dudley kapitainaren agindupean egiten dute lan. Euren lana estudefazientek, arrazismoa eta emakumeen tratu txarrekin dago lotua. Polizia batek mexicar inmigrante talde bat jipoitzen du eta beranduago, hilketa masibo bat gertatuko da kafetegi batean. Polizietako bat tartean dagoela dirudi. Trama polizial-politiko honek 50 hamarkadako Los Angeles hiriko poliziaren ustelkeria salatzen du.

1 1 1 1 • ■ • ZI 1 1 • III • II 1 1

• 011 1 1 • • 1 1 • • 1 1 ■

Ongarri zine kluba

Ongarri Zine Klubak haur eta gazteen pertsonaietan oinarrituriko ziklo motz bat eskainiko du apirilaren lehen zatian. Emanaldi egunak apirilak 2, 16 eta 17 izango dira. Apirilaren 2an Widberg sueziar zinemagileak egindako "La belleza de las cosas" pelikula emango da. Pelikula honek sari ugari irabazi ditu: 96ko Berlingo zinemaldian zilarrezko hartza, epaimahaikoen sari berezia eta Europar Akademiaren sari nagusia. Honez gain, Portugalgo Troiako jaialdian nazioarteko kritikaren saria irabazi zuen; Gliteborgen pelikula onena izendatu zuten eta 96ko Oscar sarietarako izendatuta egon zen atzerriko filmeen atalean. Apirilaren 16an eta 17an, 96ko Oscar sarietan atzerriko pelikula onena izan zena emango da: "Kolya", Jan Sverak zuzendari txekiarrarena. Aipatutako bi pelikula hauek badute bitxikeria bat: "La belleza de las cosas" filmeko protagonista zuzendariaren semea da, eta "Kolya" filmean, pelikularen zuzendaria (Sverak) eta bere semea dira protagonistak.

• Odol ateraldia

Gaur, hilak 27, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko talde bat Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan izango da odol ateraldiak egiteko. Arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean odola ateratzeko aukera izango dute aurrez deitutako guztiek. Odol Emaileen Elkarteko arduradunek dei egiten die henitarrei odola ematera joan daitezen.

• Xoxotera irteera


San Bartolome ikastolak Xoxotera mendi irteera antolatu du iganderako, hilak 29. Guraso eta ikasleek hartuko dute parte eta IMHtik izango da irteera goizeko 9:30eart.

• Bilera informatiboa Herri Institutuan

Datorren asteartean, hilak 31, bilera informatiboa egingo da Ezenarroko areto nagusian 2. BBB eta REMeko gurasoei zuzenduta. Ikasleen orizientazioa, hezkuntza sistemaren egitura, batxilergoen egitura eta modalitateak, unibertsitatera begira dauden irteerak, maila ertaineko zikloak eta beste zenbait gai aztertuko dira. Gaien interesa kontuan hartuta, gurasoen partaidetzaren garrantzia azpimarratu nahi dute Institutuko arduradunek. Bilera arratsaldeko 19:00etan izango da.

• Agatha Christie-ren "Xagu tranpa anzezlanana apirilaren 3an

Udal Kultura Sailak apirilaren 3rako antolatu duen antzerki saioa Txalo Produksioak antzeztaldearen eskutik datorren "Xagu tranpa" lana da. Agatha Christie idazle ingelesaren intrigazko antzerki batean oinarritutako istorioa da, Ramon Bareak egokituta. Izan ere, "The Mousetrap" edo "xagua tranpa", Agatha Christiek idatzitako antzezlanik ezagunena da. Misteriozko komedia hau Londresen 44 urtez segidan antzeztu dute. Misteriozko jolas bat da, denborapasa aktiboa, burmuinak martxan jartzea eskatzen duena fikziozko misterio bat argitzeko. Antzezlanaren emanaldia gaueko 22:30ean izango da Herriko Antzokian.



V12111[Jffil(

FARMAZIAK

Egunez Gauez
28 Etxeberria Etxeberria
 (Santa Ana kalean)

29 Etxeberria Etxeberria
 (Santa Ana kalean)

30 Zabaleta Zabaleta

31 Etxeberria Etxeberria
 (Errosario kalean)

1 Zabaleta Zabaleta

2 Etxeberria Etxeberria
 (Errosario kalean)

3 Etxeberria Etxeberria
 (Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA
29 igandea Fotera

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Bo Widerberg.
 Antzezleak: Johan Widerberg,
 Marika Lagererantz.

La belleza de las cosas (Suezia, 1996)

II. Mundu Gerratean, Suezian, gazte batek sexuaren inguruko gorabeherak ezagutzen ditu. Garaiko giro itogarriaren testuinguruan, andereño heldu bat bere ikasle batekin maitemintzen da. Bien artean izkutuko maitasun harremana sortuko da. Istorioa zertxobait aldrebesten hasiko da, zentroko zuzendariak eta andereñoaren senarrak maitasun harremana deskubritzen baitute.

Lana

◆ESKAINZA◆

- Irailetik aurrera Altzolatik Elgoi-barrera eskolara haur bat eramateko pertsona behar dut. Autoarekin, Goizeko 9etan Altzolatik Elgoibarreran eraman beharko luke eta eguerdiko 12:00etan jaso. Arratsaldean, berriz, 14:30etan jaso eta 16:30etan hueltatatu. a 74 44 16
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. et 74 37 22 (goizeko11:30etatik 10:30etara)
- Pertsona hat behar da harran eta sukaldan lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin. tr 74 37 60
- Mutii bat behar da furgonetarekin eta autonomoa supermerkatu hatean "portek" egiteko. Soldata ona. a 70 15 90

ESKAERA•

- Goizeko orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. tr 74 01 36 (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Emakume gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta zaharrak zaintzeko. Informeekin. ar.58.40.31
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. esperientziarekin.ir 908 67 05 70
- Atzerriko komertzioan titulatu eskaintzen da dendari lana egiteko, umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko, zr 74 10 09

Etxebizitzak

- Etxea konpartitzeko pertsona behar da Elgoiharren. r 989 35 73 70 (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Pisua salgai Urasandi 5-3an. Ganhara ere dauka. a 74 13 57
- Etxea salgai Logroñon. Erdialdean dago, 2 logela, egongela, sukaldia, jangela, hainugela eta trasteroa ditu. Prezioa hitz egitekotan. nr 74 19 39
- Pisua salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogalluarekin. 105 rn2 eta ganbara. 1r 74 11 05
- Bikote bat hizitzeko haserri haten hila dahil Eibar edo inguruetako herrietan. Edozein egoeratan dagoen baserria interesatzen zaigu. u. 907 48 07 52
- Etxehiztza saltzen da Errosario 6-lean. zr 70 26 34
- Buhardilla bat salgai P.M. Urruzuno kalean. Igogailua du. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. s 74 34 96 (Ana. gauez).

Bestelakoak

- ◆ Perikitoa galdu da gris eta zilar kolorekoa. Oinean aluminiozko txapa txiki biribila dauka. zr 74 04 97
- Urrezko helarritako hat galdu nuen astearteart, hilak 24, Sigmatik anbulategira bitartean. Saritu egin-gu da. zr 74 33 77
- ◆ Karabana saltzen da. Egoera oso onean. Tel; 350.000 pezeta. zr 74 27 29 (arratsaldeko 8:00etatik aurrera)
- Euskal artzai arrazako txakurra aurkitu nuen larunbatean. ir 74 35 72

Partikularrak

- Humanistikako klaseak hartuko nituzke selektihitaterako. zr 74 09 85
- Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. tr 74 00 98
- ◆ Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. zr 74 44 45 (Arrate)

Salerosketak

◆SALDU◆

- Kanpin denda herria salgai. zr 74 24 39
- Karabana saltzen dut TEC King markakoa. 4 pertsonarentzako lekua, estufa eta osagaiak, a 74 31 37
- Ileapaindegiko produktuak saltzen dira negozio itxieragatik. Oso prezio onean. 70 26 34
- Sukaldeko mahaia salgai, mar-mol zuria dauka eta 1,50x0,80 m.ko neunia. zt 74 12 57
- Jaunartzerako neska batentzako soinekoa saltzen dut. sr 74 41 35
- Ford Mondeo autoa salgai. Egoera onean eta prezio hobean. tr 929 78 62 66 (liligo)
- Hozkailu ia berria saltzen da merke.zr 74 23 48

◆EROSI◆

- Lokal merkea erosi nahi genduke kalean, a 74 36 94 (Ainhoa Alonso)
- Manikiak behar ditut eskapareterako. s 58 09 18 (Bego)
- Hariak gordetzeko armairua, botoiak forratzeko makina eta kutxa erregistradora erosiko nituzke. a 58 09 18 (Bego).

Garajeak

- ◆ Garaje itxia saltzen da Arregitonen.zr 75 51 77 (Tere)
- Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. zr 74 26 94
- Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. a 74 33 39

Agurrak

- Martxoaren 17an 13 urte bete zituen Analara de Pedrori zori-nak DBH lekoean partez.
- Zorionak Jon Gartziri hilaren 15ean urteak hete zituelako Ikastolako 5. maihtkoen eta ?????-ren partez.
- Zorionak Elisabet Alvarez hila-ren 1 9an t3 urte bete zituelako Jonathan eta Pasetuden partez.
- Zorionak Maile Fernandez Leali martxoaren 3an urteak bete zituelako. Iloha Erik eta Julenen partez.
- Zorionak Sonia Moralesi hilaren 24an urteak hete zituelako Ivanen partez.
- Zorionak Aritz Cerviñori mar-txoaren 23an 8 urte hete zituelako. Bere lehengusinarean partez.
- Zorionak amama eta belarritik tirakada handi bat atzo urteak bete zenituelako zure iloba Kimetz, Imanol eta etxeko guztien partez.
- Zorionak Amaia Gorostizari martxoaren 19an urteak bete zituelako, Berandu den arren, zori-nak bere alabaren partez.
- Gure gelako Marin zorionak martxoaren 26an urteak bete zituelako. AEK-ko kideen partez.
- ◆ Zorionak Eñaut Aranbarriri gaur 11 urte bete dituelako. Ikastolako 5. mailakoen partez eta batez ere nesken partez egun zoragarri hat igaro dezazula. Aupa Eñaut! Muxu handi bat nesken partez.

• Zorionak Xabier Gonzglezi hilaren 25ean urteak bete zituelako. Badakizu txanpaina zure esku geratzen dela. Zure lagunak ea noiz gonbidatzen gaituzun zain gaude.



• Zorionak Alexanderri gaur, hilak 27, 18 urte bete dituelako. Guraso, Nuria eta Jose anai-arreben partez.

• Hasier Muruari zori-nak hilaren 28an 8 urte egingo dituelako. ren eta batez ere Aitorren partez.



• Zorionak fami-liaren partez Unai Ortuoste Lopezi 3 urte bete dituelako hilaren 30ean. Ea lo gehiago egiten duen.

• Zorionak Ines Gabilondori hilaren 25ean 8 urte bete zituelako. Aita, ama, Jaime, Ivluurphy eta Txori Txikiren partez.



• Zorionak ki Conde Arto-laini gaur, ostint-la, martxoak 27, 4 urte bete dintzuelako. Osaba Iftaki eta izeha Loinazen partez. Ondo pasa eta musu handi bat.


• Musu handi bat Isaac Billba-tuari hilaren 21can 8 urte bete zituelako. Fami-lia osoaren par-tez.



• Zorionak Ana! Udaberria iristen da urteak bete-tzen dituzun egunaren buel-tan. Zergatik ote? Musu handi bana etxekoan eta etxe kanpotik etorritako guz-tien partez.



• Kari!! Atzo zure urtebetetzea izan zen eta ja-danik adin nagu-sikoa zara. Ez zaitez deprimitu, orain botoa eman dezakezu! Orain arte bezain 'guay' izaten jarrai dezazula. Zorionak! Lagunak eta zure Kari.



• Zorionak Luis eta Luciarri mar-txoaren 6an Iker jaio zelako. Zori-nak Luisi bai-ta ere hilaren 16an urteak bete zituelako. AEK-ko taldearen partez.



• Zorionak Lei-re zure urtebetetzean guraso eta familiakoen par-tez.

GREMIOAK

IGAITSIEMIZIA

liaroMptitep*AN*

Urtsanuz, 7

9 74 24

Jose

Urtsanuz, 29

9 74 29 87

9 89 58 47 23

IPINTZA

Trendige, 25

9 07 41 78 67

IDEOK S.L.

San Roke, 17

9 74 04 86

9 89 58 07 61

Santa Ana 5

9 74 17 61

JAVI

Ereixim, 1

9 74 14 80

9 08 77 25

JUAN CARI

Urtsanuz, 59

9 74 34 87

ONGI

Urtsanuz, 8

9 74 10 82

PAGOAGA

AROTZ

BIENA

Neurtira 9

Ermuabat

9 74 31

Vitoo

P. Muguruze, 30

9 74 32 38

JUARISTI

Lehoak-Armari enpottak

Santa Ana 18

9 74 29 94

LODOSO

Lehoak

KRIZITATEA

ZALDUA

Urtsanuz, 26

9 07 75 50 62

ARRETA

Urtsanuz, 50

9 08 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Uen enparniza, 4

9 07 74 04 40

9 07 76 28 80

9 74 39 91

9 07 74 04 40

9 07 74 04 40

NTURAS ELGABAR

Urtsanuz, 57-3

9 74 39 91

9 07 76 28 80

ISOLAMENDURAK

BETI ARGIA

Erosario, 6

9 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12

9 74 13 76

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94

9 74 30 94



Apirilaren letik aurrera zure zerbitzura



- **Etxebizitzak**
- Garaleak**
- Lokal komertzialak**
- Terrenoak**
- Lur Industrialak**

Etxeblitza saldu edo erosterakoan informazio zuzena eta pertsonalizatua emango dizugu

San Frantzisko, 56
Tel/Faxa: 943 74 02 40
E-mail: Churru@mx3.redestb.es